



zientziaren
ELHUYAR
komunikazioa



Lagun hori:

Azken urteetan egin duen bezala, Elhuyar Fundazioak Zernola Olinpiada jarri du abian berriz ere, zortzigarrena dagoeneko. DBHko 1. eta 2. mailako gaztetxoentzako zientziaren eta teknologiaren inguruko olinpiada da, Internet bidez jolasten dena, eta helburua da, gaztetxoei zientziarekiko zaletasuna pizteaz gain, talde-lana eta sormena sustatzea, eta, medioa kontuan hartuta, teknologia berrietan trebetasuna hartzea.

Urriari hasi eta apirila bitartean, hilero, Armixek proba bat proposatuko dizue partehartzaileoi www.zernola.net atarian. Guztira 5 proba osatu beharko dituzue talde partehartzaileok. Lehiaketan proba horiek gainditzen saiatu beharko duzue, eta, iaz bezala, gela bakoitzak www.zernola.net atarian bertan sortuko duzuen blogean zintzilikatu beharko dituzue proba osatuak. Blogik onena ere sarituko dugu. Azken proban izango da hori, baina olinpiada osoan bloga nola elikatu duzuen izango dugu kontuan. Zuen berri emateko aukera izango duzue, eta, nola ez, gainerako parte-hartzaileen blogetan ere iruzkinak egin ahal izango dituzue.

Lehenengo proba urriaren 18an argitaratuko da www.zernola.net web gunean. Proba bakoitza osatzeko, 4 aste inguruko epea izango duzue. Hilero, proba hoberena egin duen ikasgelak bi sari jasoko ditu, eta gelaren argazkia *Berria* egunkariaren Mantangorri gehigarrian argitaratuko da. Hileroko proba onenarentzako sariak honako babesle hauek emango dituzte: Donostiako Aquarium-ek, *Berria*-k, Kukuxumusuk, Zientziaren Kutxaguneak, Elkarrek, Skunkfunkek, Gaztezulok, Karpin Abentura parkeak, Mendukiloko Kobak eta Iruñeko Planetariumak.

Olinpiadaren amaieran puntu gehien jaso duten ikasgelek bi eguneko txangoa irabazikodute, eta maiatza bukaeran egingo den festa batean emango zaie saria. Lehenengo bi postuak lortzen dituztenek bi eguneko txangoa izango dute Senda Viva parkera eta Zuhatzako aterpetxera, Senda Viva eta Arabako Foru aldundiari esker. Hirugarren sailkatuek Sobrongo abentura-parkean egingo dute egun-pasa, *Sobron Abenturaldeari* esker. Joan-etorriak *Aizpuru Autobusak* enpresaren eskutik egingo dituzte irabazleek.

Gutun honen bitartez, egitarauaren berri eman nahi dizuegu. Animatu eta eman izena!

Adeitasunez,

Lorea Arakistain Zernola atariaren arduraduna

tel.: 943 36 30 40

l.arakistain@elhuyar.com

www.zernola.net



zientziaren
ELHUYAR
komunikazioa

Egitaraua.

1. Proba

Gaia: Matematika

Izenburua: Burua dantzan!

Planteamendua: Geometria jokoa

Formatua: Aurkezpena - Power Point bat

Argitaratu: Urriak 18

Entrega: Azaroak 15

Saria: Skunkfunk-en oparia, eta Iruñeko Planetariumera joateko sarrerak eta autobusa.

2. Proba

Gaia: Kimika eta zientzia-kazetaritza

Izenburua: Zorionak Marie!

Planteamendua: Marie Curieren inguruko telebistarako erreportajea

Formatua: **Telebista**-erreportajea euskaltube.com, youtube.com edo vimeo.com gunetan argitaratu eta blogera eraman.

Argitaratu: Azaroak 22

Entrega: Urtarrilak 17

Saria: Berriaren oparia, eta Zientziaren Kutxagunera joateko sarrerak eta autobusa. Bideo saritua *Berria*-ren web gunean egongo da ikusgai.

3. Proba

Gaia: IKTak – Ikerketa-soziologikoa

Izenburua: Ikernet

Planteamendua: Ikertu zuen herrian nola, nork eta zertarako erabiltzen duen internet.

Formatua: Aurkezpena



zientziaren
ELHUYAR
komunika-zioa

Argitaratu: Urtarrilak 24

Entrega: Otsailak 21

Saria: Kukuxumuxuren oparia, eta Karpin Abenturara joateko sarrerak eta autobusa.

4. Proba

Gaia: Ingurumena

Izenburua: Ibaialde ZN

Planteamendua: *Proba* hau AZTERTU programaren barruan Eusko Jaurlaritzak egiten duen [Ibaialde](#) proiektuarekin dago lotuta erabat. Ibai batera hurbildu, eta haren azterketa egingo da.

Formatua: Posterra

Argitaratu: Otsailak 28

Entrega: Martxoak 28

Saria: Gaztezulo aldizkaria, eta Donostiako Aquariumera joateko sarrerak eta autobusa.

5. Proba

Gaia: Bloga

Izenburua: Zu eta ni blogging.

Planteamendua: Olinpiadan osoan osatutako bloga baloratuko da

Formatua: Bloga

Argitaratu: Apirilak 4

Entrega: Maiatzak 2

Saria: Elkar argitaletxearen liburu bana, eta Astizko kobetara joateko sarrerak eta autobusa.